



OSASUN SAILAREN GOMENDIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HONDARTZAK NORMALTASUN BERRI BATERAKO TRANTSIZIO- PLANAREN 2. FASEAN ERABILTZEARI BURUZ.

Lehendakariaren maiatzaren 24ko 12/2020 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegorako, trantsizio-prozesuaren 2. fasea aplikatzeko arauak ezarri ziren, Espainiako Gobernuarekin adostuta. Dekretu horren helburua da Espainiako Gobernuarekin batera normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 2. faserako adostutako malgutze-neurriak Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatzeko agintzea.

Hori guztia, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak COVID-19k eragindako osasun-egoera kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera luzatzen duen maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren 4.1 artikuluan xedatutakoaren esparruan, eta SND/414/2020 Aginduaren azken xedapenetatik bigarrenaren 7, 18.6 eta 20. artikuluetan eta bosgarren paragrafoan ezarritakoari dagokionez. Alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu-mailako murrizketa jakin batzuk malgutzea, Planaren 2. fasea aplikatuz, beste baterako trantsizioan.

Horregatik, artikulua horietan zehaztu ez denerako, maiatzaren 16ko SND/414/2020 Agindua bera aplikatu behar da, normaltasun berri baterako trantsiziorako planaren 2. fasea aplikatuz alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako estatu-mailako zenbait murrizketa malgutzeko.

Besteak beste, agindu horretan hondartzei buruz jasotako arau hauek aplikatuko dira:

"46. artikulua. Hondartzen erabilera.

1. Hondartzetan igarotzea eta bertan egotea, bai eta kirol-, lanbide- edo jolas-jarduerak egitea ere, agindu honen 7. artikuluan 2. paragrafoan aurreikusitako moduan egingo dira, betiere banaka eta kontaktu fisikorik gabe egin badaitezke, eta parte-hartzaileen artean gutxienez bi metroko distantzia badago. "

Horri dagokionez, honako hau hartu behar da kontuan:

- Maiatzaren 16ko SND/414/2020 Aginduak, normaltasun berri baterako trantsizio-planaren 2. fasea aplikatuz alarma-egoera deklaratu ondoren ezarritako eremu nazionaleko zenbait murrizketa malgutzekoak, 7.2. artikuluan honako hau ezartzen du:

"Nolanahi ere, errespetatu egin beharko dira osasun-agintariek COVID-19 prebenitzeko ezarritako segurtasun- eta higiene-neurriak, eta, bereziki, gutxienez bi metroko segurtasun-distantzia mantentzeari buruzkoak, edo, halakorik ezean, babes fisikorako, eskuen higienarako eta arnas etiketarako ordezkoko neurriak. Horretarako, taldeak hamabost pertsonakoak izan beharko lirateke gehienez, bizikideen kasuan izan ezik. "

- Bestalde, Lehendakariaren maiatzaren 24ko 12/2020 Dekretuaren 2. artikulua ("zirkulazio-askatasuna") honako hau ezartzen du:

"1. -Pertsonen mugikortasuna murrizten zuten ordu-tarteak ezabatuta geratzen dira.

2.- 70 urtetik gorako pertsonak eta arrisku-taldeen lehentasuna izango dute erabilera publikoko espazioetan, 10:00etatik 12:00etara bitarteko ordutegietan eta 19:00etatik 20:00etara bitarteko ordutegietan.

3. - Pertsonak gehienez 15 laguneko familia- eta gizarte-bilerak egitera joan ahal izango dira etxebizitza eta lokal pribatuetan edo erabilera publikoko espazio irekietan, osasun-agintariek ezarritako babes pertsonaleko eta distantzia fisikoko arauak errespetatuz. "

46. artikulua, hondartzen erabilerari buruzkoak, honako hau dio:

2. Aire zabaleko dutxak eta garbitegiak, komunak, aldagelak eta antzeko beste zerbitzu publiko batzuk erabil daitezke. Pertsona batek beteko du, gehienez ere, laguntza behar duten pertsonen kasuan izan ezik; kasu horretan, laguntzailearekin egon ahal izango dira. Komun horien garbiketa eta desinfekzioa indartu beharko dira, betiere osasungarritasun- eta higiene-egoera bermatuta.

3. Bainulariek modu arduratsuan erabili beharko dituzte hondartza eta haren instalazioak, ingurumenaren eta osasunaren ikuspegitik, eta, horretarako, osasun-agintariek ezarritako gomendioak eta arauak bete beharko dituzte.

4. Objektu pertsonalak, eskuoihalak, etzaulkiak eta antzeko elementuak beste erabiltzaile batzuekiko bi metroko segurtasun-perimetroa bermatzeko moduan kokatuko dira, elkarrekin bizi diren bainularien edo agindu honetako 7. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako gehieneko pertsona-kopurua gainditzen ez dutenen kasuan izan ezik. Txandaka erabiltzen diren etzaulkiak garbitu eta desinfektatu egin beharko dira erabiltzailea aldatzen denean.

5. Udalek mugak ezarri ahal izango dituzte hondartzetara sartzeko - Doakoa izango da beti - Nahiz hondartzetarako edukiera izateko, bainularien artean gutxienez bi metroko pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela ziurtatzeko. Era berean, ahalik eta pertsona gehienek osasun-segurtasuneko baldintzak betetzen dituztela bermatze aldera, mugak ezarri ahal izango dituzte bertan egoteko denboretan, bai eta aparkalekuetarako sarbideetan ere, hondartzetako edukieraren kontrola errazteko.

Hondartza bakoitzak baimendutako gehieneko edukiera kalkulatzeko, bainulari bakoitzak hartu beharreko hondartza-azalera lau metro koadro ingurukoa izango da.

6. Udalek ziurtatuko dute hondartzetako instalazioak eta ondasunak garbitu eta desinfektatzen direla, ingurumenerako kaltegarriak ez diren substantziak erabiliz.

7. Erabiltzaileei ikusteko moduko kartelen edo bestelako bitartekoen bidez gogoraraziko zaizkie bete beharreko higiene- eta prebentzio-arauak, eta adieraziko zaie beharrezkoa dela instalazioa uztea COVID-19rekin bateragarria den edozein sintoma dagoenean.

8. Hondartzetan egiten diren ostalaritza- eta jatetxe-jarduerak, estali gabekoak barne, itsas-lehorreko jabari publikoa okupatu edo aprobetxatzeko emakida edo baimena dutenak, agindu honetan ostalaritza- eta jatetxe-araubiderako ezarritakoaren arabera arautuko dira, aplikatu beharreko sektore-legerian xedatutakoari kalterik egin gabe.

Uretako motorren, motor hidropedalen eta beste edozein kirol- edo laket-elementuren negozioen arduradunek txikizkako merkataritzarako agindu espezifikoetan xedatutakoak bete beharko dute, eta, bereziki, higienari eta desinfekzioari dagokienez. Ibilgailu guztiak garbitu eta desinfektatu beharko dira erabilera bakoitzaren aurretik. "

Euskal Autonomia Erkidegorako trantsizio-prozesuaren 2. fasea aplikatzeko Espainiako Gobernuarekin adostutako arauak ezartzen dituen Lehendakariaren maiatzaren 24ko 12/2020 Dekretuaren hitzaurrean adierazten denez, epidemiaren bilakaerak hobekuntza iraunkorra erakutsi du Euskadin orain arte. Egungo datuen arabera, osasun-larrialdiko egoera batetik osasun-zaintzako estadio batera igaro ahal izan da. Une honetan, detekzio goiztiarra eta kasu positiboak modu eraginkor eta berehalakoan isolatzea da lehentasuna, baita kontaktuak identifikatzea ere.

Hori dela eta, gogorarazten zaie bai Euskal Autonomia Erkidegoko udalei, bai euskal administrazio publikoen mendeko polizia-kidegoei, oso garrantzitsua dela goian deskribatutako arau-xedapenak eta Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak 2020ko maiatzaren 20an onetsitako oinarritzko irizpideak eta gomendioak hondartzen eremuan ahalik eta zehatzen aplikatzea. Euskadiko epidemia-bilakaeraren azken bi urteetako aurrerapenak segurtasunez finkatu eta sendotzeari eragiten dioten egoerak saihestea

Zorroztasun horren barruan, aurreko egun hauetan ikusitako segurtasun-tarteak mantentzea ezinezkoa denez, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren irizpide eta gomendioei honako hauek gehitu zaizkie:

- 2. eta 3. deseskalatze-faseetan, hondartzen erabilera dinamikoa sustatu beharko da, hondartzen erabilera estatikoa saihestuz.
- Hondartzetan, beste espazio publiko batzuetan bezala, une edo leku jakin batean bi metroko segurtasun-distantzia mantentzea eragozten duten baldintzak badaude, maskarak erabiltzea nahitaezkoa da.

Horretarako, agintari horiei eskatzen zaie behar diren neurriak har ditzatela Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren araudia eta irizpideak eta gomendioak betetzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 29a



Izpta.: IÑAKI BERRAONDO ZABALEGUI
Osasuneko sailburuordea

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD